**RESOLUCIÓN DEL VICERRECTOR DE INVESTIGACIÓN DE LA UPV/EHU, DE 19 DE DICIEMBRE DE 2017, POR LA QUE SE MODIFICAN LOS CRITERIOS DE EVALUACIÓN DE LA ACTIVIDAD INVESTIGADORA DEL PERSONAL CONTRATADO POR LA UPV/EHU BAJO LA MODALIDAD DE ACCESO AL SISTEMA ESPAÑOL DE CIENCIA, TECNOLOGÍA E INNOVACIÓN**

**Primero.-** Por resolución del vicerrector de Investigación de la UPV/EHU, de 10 de octubre de 2017, se aprobaron los criterios de evaluación de la actividad investigadora del personal contratado por la UPV/EHU bajo la modalidad de acceso al sistema español de ciencia, tecnología e innovación.

**Segundo.-** Contra dicha Resolución, los interesados podían optar por interponer un recurso de reposición, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de su publicación en la página web del Vicerrectorado de Investigación ante el mismo órgano que dictó el acto.

**Tercero.-** Se han recibido, dentro del plazo, varios recursos de reposición contra dicha Resolución solicitando la modificación de los criterios y la reducción de la puntuación para obtener la evaluación positiva.

**Cuarto.-** Recibido los Recursos, se solicita informe a Unibasq y al Servicio Jurídico de la Universidad, que se reciben con fecha 4 de diciembre de 2017 y 5 de diciembre, respectivamente.

**Quinto.-** En base a la propuesta recibida por Unibasq se ha decidido estimar parcialmente algunos Recursos de Reposición y, en consecuencia, proceder a modificar la Resolución de 10 de octubre de 2017, en los términos que se recogen en el Anexo.

## RESUELVO

**Primero.-** Aprobar la modificación de la resolución del vicerrector de Investigación de la UPV/EHU, de 10 de octubre de 2017, por la que se aprueban los criterios de evaluación de la actividad investigadora del personal contratado por la UPV/EHU bajo la modalidad de acceso al sistema español de ciencia, tecnología e innovación, modificando los criterios de evaluación cuya redacción queda tal y como se anexan a la presente Resolución formando parte integrante de la misma.

**Segundo.-** Ordenar la publicación de la presente Resolución en los tablones de anuncios del Vicerrectorado de Personal Docente e Investigador y del Vicerrectorado de Investigación, así como en la página web del Vicerrectorado de Investigación de la UPV/EHU.

## RECURSOS

*Contra la presente Resolución se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el órgano competente de la jurisdicción Contencioso-Administrativa, dentro del plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de su publicación en la página web del Vicerrectorado de Investigación.*

*No obstante, los interesados podrán optar por interponer un recurso de reposición, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de su publicación en la página web del Vicerrectorado de Investigación ante el mismo órgano que dictó el acto. En este caso no cabrá interponer el recurso contencioso-administrativo anteriormente citado en tanto recaiga resolución expresa o presunta del recurso de reposición, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 123 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.*

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA – VICERRECTORADO DE INVESTIGACIÓN – EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA – UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

Fdo.: José Luis Martín
Vicerrector de Investigación

# CRITERIOS PARA LA EVALUACIÓN DE LA ACTIVIDAD INVESTIGADORA DEL PERSONAL CONTRATADO BAJO LA MODALIDAD DE ACCESO AL SISTEMA ESPAÑOL DE CIENCIA, TECNOLOGÍA E INNOVACIÓN

| APARTADOS | PUNTUACIÓN MÁXIMA QUE SE PUEDE OBTENER POR APARTADO | PUNTUACIÓN MÍNIMA PARA CONSEGUIR LA EVALUACIÓN POSITIVA |
|---|---|---|
| 1.- Estancias de Investigación | 10 puntos | |
| 2.- Actividad Investigadora y Transferencia de Conocimiento | 85 puntos | 60 puntos |
| **TOTAL** | | 70 puntos |

## 1. ESTANCIAS DE INVESTIGACIÓN

- Estancias pre-doctorales y postdoctorales en función de la relevancia en centros universitarios o de investigación diferentes a las universidades del Sistema Universitario Vasco

## 2. ACTIVIDAD INVESTIGADORA Y TRANSFERENCIA DE CONOCIMIENTO (Hasta 85 puntos)

### 2.1. Publicaciones y Patentes (Hasta 65 puntos)

La acreditación de 15 aportaciones equiparables a 3 sexenios de investigación otorgará al menos 40 puntos. Será el Comité de Evaluación quien decida si las aportaciones son de suficiente entidad, siguiendo los criterios estandarizados para cada área de conocimiento.

El máximo se alcanzará con la acreditación de 25 contribuciones equiparables a 5 sexenios de investigación. Será el Comité de Evaluación quien decida si las publicaciones son de la entidad suficiente, siguiendo los criterios estandarizados para cada área de conocimiento.

### 2.2. Actividades colectivas de investigación y de transferencia del conocimiento: proyectos, contratos, grupos y redes de investigación (Hasta 15 puntos)

Se tiene en cuenta especialmente el tipo de participación y grado de responsabilidad de la persona solicitante en proyectos de investigación incluidos en programas competitivos de la Unión Europea, de otros organismos o instituciones internacionales (NSF, Fullbright, USA, Japón, etc.), de los Planes Nacionales, de las Comunidades Autónomas y de otros entes u organismos públicos o privados sometidos a evaluación externa, especialmente por la Agencia Nacional de Evaluación y Prospectiva (ANEP) u organismo similar, de ámbito nacional o internacional.

En el caso de áreas clínicas se valorarán además las actividades de investigación clínicas en convocatorias competitivas, certificadas por autoridades sanitarias competentes.

El máximo se alcanzará con acreditar ser IP o una participación altamente significativa a juicio del IP, en proyectos de investigación incluidos en programas competitivos de la Unión Europea, en Planes Nacionales, o en internacionales durante al menos 6 años.

Se valorarán los:

- Proyectos de investigación obtenidos en convocatorias competitivas (se tendrá en cuenta el tipo de convocatoria: universitaria, autonómica, nacional, internacional).
- Contratos de investigación con la administración pública o con empresas (se tendrá en cuenta su relevancia científica y el importe de los mismos).
- Participación en grupos y redes de investigación formalizadas (se tendrá en cuenta el tipo de convocatoria y la relevancia científica del grupo y la red).

La valoración tendrá en cuenta el tipo de participación: investigador principal, coordinador de subproyecto, investigador, becario, etc.

**2.3. Congresos (Hasta 5 puntos)**

Se valorarán las ponencias invitadas, conferencias plenarias, comunicaciones orales o póster en congresos, preferentemente internacionales.

Los congresos científicos considerados son los de carácter internacional (y excepcionalmente los nacionales de especial relevancia, según área del conocimiento), que incluyan revisión por pares y con una antigüedad y periodicidad que les convierta en referencia en su ámbito de conocimiento. En relación a estos congresos se valoran:

• Ponencias invitadas.

• Comunicaciones orales y en forma de póster.

• Resúmenes extendidos de actas de congresos (proceedings).

• Otras presentaciones a congresos.

Las conferencias y seminarios se valorarán teniendo en cuenta su carácter periódico, el prestigio de la entidad o Comité organizador, y la publicación o no de las mismas.

El máximo se alcanzará con la participación en 10 congresos internacionales siempre que al menos dos de ellas hayan sido ponencias invitadas (excepcionalmente en nacionales de relevancia, según área de conocimiento). Será el Comité de Evaluación quien decida el grado de relevancia de cada aportación siguiendo los estándares de cada área de conocimiento.

**2.4. Dirección de tesis doctorales (Hasta 20 puntos)**

El máximo se alcanzará con la dirección/codirección (máx. dos directores/as) de 5 tesis internacionales, con calificación máxima y premio extraordinario.

**ERABAKIA, 2017ko ABENDUAREN 19koa, UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, ESPAINIAKO ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA SISTEMARA SARTZEKO MODALITATEAREN BARRUAN UPV/EHUk KONTRATATUTAKO IKERTZAILEEN IKERLANA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK ALDATZEKO DENA**

**Lehenengoa.-** UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordearen 2017ko urriaren 10eko Erabakiaren bidez Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemara sartzeko modalitatearen barruan UPV/EHUk kontratatutako ikertzaileen ikerlana ebaluatzeko irizpideak onartu ziren.

**Bigarrena.-** Interesatuek aukera izan zuten erabaki horren aurka egintza eman zuen organoari berari berraztertzeko errekurtsoa jartzeko, hilabeteko epean, erabakia Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web orrian argitaratu zen egunaren biharamunetik hasita.

**Hirugarrena.-** Epearen barruan erabakiaren aurkako hainbat berraztertzeko errekurtso jaso ziren, eta horietan irizpideak aldatzeko eta ebaluazio positiboa lortu ahal izateko puntuazioa jaisteko eskatu zuten interesatuek.

**Laugarrena.-** Errekurtsoak jaso ondoren, txostenak eskatu zitzaizkien Unibasq-i eta unibertsitateko Lege Zerbitzuari, eta txosten horiek 2017ko abenduaren 4an eta 5ean jaso ziren, hurrenez hurren.

**Bosgarrena.-** Unibasq-ek egindako proposamena oinarri hartuta, erabaki da berraztertzeko errekurtsoetako batzuk zati batean onartzea, eta, ondorioz, 2017ko urriaren 10eko Erabakia aldatzea eranskinean zehazten den moduan.

**ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.-** Onartzea aldaketak egin daitezela UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordearen 2017ko urriaren 10eko Erabakian, Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemara sartzeko modalitatearen barruan UPV/EHUk kontratatutako ikertzaileen ikerlana ebaluatzeko irizpideak onartzekoan. Aldaketa horiek ebaluazio irizpideei egingo zaizkie eta irizpideok erabaki honen zati den eranskinean zehaztutako idazkera izango dute.

**Bigarrena.-** Agintzea erabaki hau argitara dadila Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzaren eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren iragarki tauletan eta UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web orrian.

**ERREKURTSOAK**

*Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organo eskudunaren aurrean, bi hilabeteko epean, erabakia Ikerketaren arloko Errektoreordetzako web orrian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.*

*Hala ere, interesatuek aukera izango dute egintza eman duen organoari berari berraztertzeko errekurtsoa jartzeko, hilabeteko epean, erabakia Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web orrian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Azken kasu horretan ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri, berraztertzeko errekurtsoaren ebazpen espresua eman edo presuntziozko ezespena gertatu arte, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorrita.*

IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA VICERRECTORADO DE INVESTIGACIÓN EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

Stua.: José Luis Martín
Ikerketaren arloko errektoreordea

## ESPAINIAKO ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA SISTEMARA SARTZEKO MODALITATEAREN BARRUAN UPV/EHUk KONTRATATUTAKO IKERTZAILEEN IKERLANA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

| ATALAK | ATALKA LOR DAITEKEEN GEHIENEKO PUNTUAZIOA | EBALUAZIO POSITIBOA LORTZEKO GUTXIENEKO PUNTUAZIOA |
|---|---|---|
| 1.- Ikerketa egonaldiak | 10 puntu | |
| 2.- Ikerlana eta ezagutzaren transferentzia | 85 puntu | 60 puntu |
| **GUZTIRA** | | 70 puntu |

| **1. IKERKETA EGONALDIAK** |
|---|
| - Doktorego aurreko eta osteko egonaldiak, Euskal Unibertsitate Sistemaz kanpoko unibertsitate edo ikerguneetan, garrantziaren arabera. |

**2. IKERLANA ETA EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA** (gehienez 85 puntu)

**2.1. Argitalpenak eta patenteak (gehienez 65 puntu)**

Ikerketako hiru seiurtekoren pareko 15 ekarpen egiaztatuta, gutxien dela, 40 puntu lortuko dira. Ebaluazio Batzordea izango da ekarpenak nahikoa garrantzitsuak diren erabakiko duena, jakintza arlo bakoitzerako ezarritako irizpideei jarraiki.

Gehieneko puntuazioa lortuko da ikerketako bost seiurtekoren pareko 25 ekarpen egiaztatuta. Ebaluazio Batzordea izango da argitalpenak nahikoa garrantzitsuak diren erabakiko duena, jakintza arlo bakoitzerako ezarritako irizpideei jarraiki.

**2.2. Ikerketako eta ezagutzaren transferentziako talde jarduerak: proiektuak, kontratuak, ikertaldeak eta ikerketa sareak (gehienez 15 puntu)**

Aintzat hartuko da eskatzaileak ikerketa proiektuetan izandako parte hartzea eta erantzukizun maila, proiektuok sartuta badaude Europar Batasuneko lehiaketa bidezko programetan edo nazioarteko bestelako organismo edo erakundeetakoetan (NSF, Fullbright, AEB, Japonia etab.), plan nazionaletakoetan, autonomia erkidegoetakoetan eta kanpotik ebaluatutako erakunde edo organismo publiko zein pribatuetakoetan, bereziki kanpoko ebaluazio hori Ebaluazioaren eta Prospektibaren Agentzia Nazionalak (ANEP) edo estatu barruko zein nazioarteko antzeko organismoren batek egin badu.

Arlo klinikoen kasuan, lehiaketa bidezko deialdietan egindako ikerketa klinikoko jarduerak baloratuko dira, horiek osasunaren arloko erakunde eskudunek ziurtatutakoak badira.

Gehieneko puntuazioa lortuko da gutxienez sei urtez Europar Batasuneko lehiaketa bidezko programetako, plan nazionaletako edo nazioarteko planetako ikerketa proiektuetan ikertzaile nagusia izateagatik, edo ikertzaile nagusiaren iritziz proiektuotan parte hartze oso esanguratsua izateagatik.

Honako hauek baloratuko dira:

- Lehiaketa bidezko deialdietan lortutako ikerketa proiektuak (kontuan hartuko da deialdi mota: unibertsitatekoa den, autonomia erkidegokoa, estatukoa edo nazioartekoa).
- Administrazio publikoarekin edo enpresekin sinatutako ikerketa kontratuak (kontuan hartuko da kontratuon garrantzi zientifikoa eta zenbatekoa).
- Ikertalde eta ikerketa sare formalizatuetan parte hartzea (kontuan hartuko da deialdi mota eta taldearen eta sarearen garrantzi zientifikoa).

Balorazioan kontuan hartuko da parte hartze mota: ikertzaile nagusia izatea, azpiproiektuaren koordinatzailea, bekaduna, etab.

**2.3. Kongresuak (gehienez 5 puntu)**

Kongresuetan, nagusiki nazioartekoetan, gonbidatu moduan emandako hitzaldiak, hitzaldi plenarioak, ahozko komunikazioak edo posterrak baloratuko dira.

Nazioarteko kongresu zientifikoak hartuko dira kontuan (eta, salbuespenez, garrantzi handiko estatu mailakoak, jakintza arloaren arabera), horietan parekoen zuzenketa izan bada, eta kasuan kasuko jakintza eremuan erreferente badira euren antzinatasunagatik eta aldizkakotasunagatik. Kongresu horiei dagokienez, honako hauek baloratuko dira:

- Gonbidatu moduan emandako hitzaldiak.
- Ahozko komunikazioak eta posterrak.
- Kongresuetako aktetako hitzaldien laburpenak (*proceedings*).
- Kongresuetarako bestelako aurkezpenak.

Konferentziak eta mintegiak baloratzerakoan kontuan hartuko da horien aldizkakotasuna, erakunde edo batzorde antolatzailearen izen ona, eta ekarpenak argitaratu diren ala ez.

Gehieneko puntuazioa lortuko da nazioarteko 10 kongresutan parte hartuta, betiere, parte hartze horietako bi, gutxienez, gonbidatu moduan emandako hitzaldiak izan badira (kongresuok, salbuespenez, garrantzi handiko estatu mailakoak ere izan daitezke, jakintza arloaren arabera). Ebaluazio Batzordea izango da ekarpenek zenbaterainoko garrantzia duten erabakiko duena, jakintza arlo bakoitzerako ezarritako irizpideei jarraiki.

**2.4. Doktorego tesiak zuzentzea (gehienez 20 puntu)**

Gehieneko puntuazioa lortuko da gorengo kalifikazioa eta sari berezia lortu duten bost nazioarteko doktorego tesiren zuzendaria edo zuzendarikidea izateagatik (betiere, zuzendarikideak bi baino gehiago ez badira).